

3-7 ESKABIDEAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ESKABIDE HAU HIRUGARREN ETA HURRENGO SEME-ALABEI ZUZENDUTA DAGO

1. Eskabide mota

Erditze anizkoitzaren, adopzio nazional anizkoitzaren edo nazioarteko adopzioaren kasuan, dagokion laukia hautatu beharko da, eta I. eranskina bete (4. orrialdea).

Nork aurkezten du eskabidea?

- **Interesduna:** Laguntza jaso nahi duen pertsona da, eskatzailea. Ama edo aita, harreragilea eta tutorea izan daitezke, semearen edo alabaren zaintza eta jagoletza esleituta duen familia-unitateko kidea bada.
- **Ordezkarria:** baldin eta interesdunaren ordezkarria beste pertsona bat bada. Kasu honetan, Joan 5. orria eta bete I. eranskina - "Ordezkaritza-baimena".

2. Eskatzailearen datuak

Abizenek eta izenek ZEHAZKI bat etorri beharko dute NAN edo AIZ agerian agertzen direnekin.

- **NAN/AIZ/Pasaportea:** Eskatzaileak nazionalitate espainiarra duenean, bere NANaren zenbakia idatziko da. Eskatzaileak nazionalitate espainiarra ez duenean, AIZ (atzeritarren identifikazio-zenbakia) edo pasaportea adierazi beharko da.
- **AIT:** AIZ badauka eta, gainera, AIT agiria badauka (atzeritarren identifikazio-txartela), adierazi zenbakia.

3. Bankuko datuak

- Bete eskatzailearen banku-datuak.
- Eskatzaileak **banku-kontuaren titularra** izan beharko du.
- Eskatzaile bakoitzak **kontu-zenbaki bakarra** eduki ahal izango du laguntza-lerro honetarako, eta laguntza hauetarako soilik erabiliko da.
- Zure banketxea **EZ** bada: KUTXABANK, BANCO SANTANDER, LABORAL KUTXA, CAIXABANK, BBVA, SABADELL edo CAJA RURAL DE NAVARRA edo ABANCA, kontuaren titulartasun-agiria aurkeztu beharko duzu.
- **Identifikatzeko pasaportea erabili bada:** Zure banku-erakundea edozein dela ere, kontuaren titulartasun-agiria eta pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko dituzu.

Zer da kontuaren titulartasunaren dokumentua? Erakundearen izena, banku-kontuaren zenbakia eta nortasun-zenbakia (NAN, AIZ edo pasaportea) jasotzen dituen banku-agiria.

4. Jakinarazpenetarako datuak

- Administrazioaren oharra eta jakinarazpenak jasotzeko eskatzaileak hautatzen duen modua.
- Identifikazio-ziurtagiri elektronikorik ez baduzu, posta-komunikazioa aukeratzeko gomendatzen dizugu, bestela ezingo baitituzu eskuratu "Nire Karpeta" atalean zure esku jartzen diren jakinarazpenak:
- **Oharra:** 10 egunean jakinarazpen elektronikoa sartzen ez bazara, jakinarazpena ezetsizat joko da; hau da, izapidea egintzat emango da, eta prozedurak aurrera egingo du.

5. Eskatzailea ez denaren datuak

- Beste gurasoa (ama edo aita) edo beste harreragilea edo tutorea.
- Beste pertsona hori bada bete behar da soilik.

6. Egungo ezkontidearen edo bikotekidearen datuak

- Gaur egun eskatzailearekin bizi den pertsona da.

6. Familia-unitatean bizi diren beste seme-alaben datuak

- Familiaren etxebizitzan bizi diren eta ekonomikoki familiaren mende dauden (lanbide arteko gutxieneko soldata gaintzen ez duten urteko errentak) 25 urtetik beherako seme-alaben datuekin beteko da.
- Seme-alaben hurrenkera jaiotza-dataren arabera izango da.

II. eranskina: Laguntza nork kobratuko duen/seme-alabak nork zenbatuko dituen zehazteko akordioa

Kasu hauetan beteko da:

- Laguntza eragin duen seme edo alabaren zaintza partekatua: Seme edo alabarengatik laguntza zein gurasok (ama/aita, hartzailea/tutorea) kobratuko duen zehazteko.
- Laguntza eragin EZ duten seme-alaben zaintza partekatua: Beste gurasoak (ama/aita, harreragilea, tutorea) baimentzeko, beren egungo familia-unitatean seme-alabak zenbatu ditzaten, 3-7 laguntza kobratzeari begira.

III. eranskina: Zaintza partekatuko seme-alaben familia-errolatzea kontsultatzeko baimena

Kasu honetan beteko da:

- Zaintza partekatua: Laguntza eragin duen semea edo alaba ez dago eskatzailearekin errolatuta. Baimen horrekin, egiaztatuko da semea edo alaba beste gurasoarekin (ama/aita, tutorea, hartzailea/hartzailea) errolatuta dagoela.